

Nafar **karia**

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko maiatzak 1 / II. urtea / 23. zenbakia

Zubian barne



BINGEN AMADOZ

Aldamenean bizi diren giro, mundu eta jendeak ezagutzeak sorpresa galantak ekartzen dizkigu. Ez nuen uste bertsolaritza horren erakargarritasun polita sortzeko gauza izan zitekeenik.

Euskararen inguruan mugitzen den guztiak badu niretzat interesa, baina, jakina, ez daiteke beti modu berean murgildu giro-atal guztietan eta zerbaitetan aritzeko gure trebetasuna mugatua den bezala, hala da ere inguruak eskeintzen digun guztia sakonki ezagutzeko ahalmena. Dena den, eta harira itzuliz, berriki nafar bertso-txapelketaren saio batzuetan entzule izateko aukera izan dut eta bertsolaritzak bihotzeraino iristeko duen erretasuna izan da gehien harritu nauena.

Bertsolariak, bapateko bertsoak jartzen duten trebezi apartekoa erakustez gain, bereziko sentiberatasunaren jabe direla ere ezin uka. Poesiak, hala edo hola, beti adieraziko digu zerbait sakona, barneko gure muin, errain, eta auskalo nungo bihotz-txokotan oratzen zaiguna.

Bertsolaritzak, gurean, herri xehearengana iristeko aukera du eta horrek sekulako aberastasuna ematen digu, ez baitute herri guztiek bideak urraturik izaten, kultur edo hezkuntz maila guztietako gizon-emakumeengana sentimenduak eramateko.

Oraingo honetan Nafarroan gainera, arrazoi handia izan dugu bertsolaritzaren egoeraren aurrean pozik egoteko. Balore berriak hasiak ditugu bertsoak sortzen. Euskararentzat zutabe garrantzizkoa dugun bertsolaritzari etorkizuna bermatzeak poza besterik ez du ematen. Hortik ere agian, Gaiarre Antzokiko entzule-euskaltzaleengan, emozioak eraginda, aise ageri ziren malko itxaropentsuak.

Zaraitzuko etorkizunaz

Zaraitzuko Batzar Nagusiak Iratiko egurraren ustiakuntzatik ateratako irabaziak bertakoen artean banatuko ditu aurten ere. Oro har, berrogei milioi pezeta. Eta aurten ere, eztabaida gogorra sortu da ohitura zahar honen aldeko eta kontrako artean. Izan ere, askok ez dute ulertzen nola ba-

natu daitekeen dirua inbertsioak hain beharrezkoak dituen zonalde batean, aho batez bizitza eskatzen duen ibarrran. Horregatik, diruaren inguruko eztabaidaren atzetik, gai sakonago eta garrantzitsuagoa ezkututzen da: ibarrraren etorkizunari buruzko eztabaida, hain zuzen ere.

Barnean

KONTZERTUAK



Taberna eta diskoteken arteko eztabaida / VII

MUSIKA



Pottoka kantariak bere lehen diska grabatu du / VIII

Gure aukerak

Ola, mendia, eta jendea

ERAKUSKETAK



Pilar Alava Mendieta artista-
ren erakusketa ikus daiteke maia-
tzaren hamarra arte Lan Kide
Aurrezki Kutxaren aretoan, Sara-
sate ibilbidean. Marrazkiak dira
neska honek aurkezten dituen
lanak, Gipuzkoako leku desber-
dinetako irudiak sortuz. Natural-
tasun handiz egindako marraz-
kiak dira, argiguneen eta itzal-
errainuen marrak bereiztuz.

**Euskarazko sormen taille-
rren** erakusketa ikusgai dago as-
te osoan zehar, eta igandera arte
iraungo du. Euskarazko taille-
r hauek, udalak antolatutakoak,
apirileko hasieran bukatu ziren,
eta erakusketa honetan bertan
egin diren lanak erakusten dira.
Pintura, eskultura, argazkigintza
eta tapizigintzako tailerretan e-
gindakoak daude esposaketan.

MINTZALDIAK



Euskararen soziologia Iru-
ñea eta Nafarroako Erdialdean
XVII. mendean izeneko mint-
zaldia emanen du Jimeno Jurio
etnografoak asteartean, hilak 5,
Hizkuntz Eskolak Caldereria ka-
lean duen aretoan. Mintzaldia er-
deraz izanen da eta arratsaldeko
zortzietan hasiko da. Arturo Kan-
pion euskaltegiak antolatuta.
Euskaltegiak bere 20. urteurrena
ospatzeko maiatzaren 23an egin
nahi duen bazkarirako txartelak
salgai daude dagoeneko.

ERRAN DUTE

«Valladoliden
aurrean ez ge-
nuen behar guztia egin».

Pedro Mari Zabalza
Osasunako entrenatzailea

«Hamasei militante ditugu
Nafarroan».

Koldo Martinez
EUEko burua

«ETAko azken atentatua
Gipuzkoako akordioa si-
natu zutenei merezitako
erantzuna da».

Jesus Aizpun
UPNko buruzagia

«Escrivaren beatifikazioa-
ren inguruko polemika lau
pertsonek kontua da».

Flavio Capucci
Kardinale

Aezkoan izanen da asteburu ho-
netan AEK Jira, eta kontzertu,
mahai inguru eta ekitaldi politikak
antolatu dira horretarako. Horrek
aukera ematen du bertako herri
eta paraje ederrak bisitatzeko.

Aezkoako historia oso lotuta
dago Orbaizetako olarekin, Es-
painiako Koronak XVIII. men-
dean paratu zuena, armak eta
egiteko. Hala ere, bere kokape-
nak, oso urrun herri handietatik,
gaizki komunikatuta, eta muga-
tik oso gertu, zapuztu zituen hel-
buru guztiak.

Egun hondakinak baino ez dira
bertan, ederrak baina. Ondotik
dagoen auzotik ibilbide aparta
egin daiteke Urkulu mendira,
Erromatarrek bertan eraiki zu-
ten eraikinetatik ikusmira ederra
dastatu ahal izateko. Ortzanzu-
rieta eta Mendilaz ere dira auke-
ragai.

Orbaizetako Olarako bidetik
ateratzen den pistatik Irabiako
Uharka eta Iratiko Etxeetaraino
hel daiteke, pistaren egoerak,



ibilgailuari benetako suspen-
sioak eskatzen badizkio ere.
Aproposa, bera, mendi txirrin-
dulaz egiteko.

Orbara, Aribe, Garralda, Hiri-

berri, aukera franko Nafarroako
zonalderik baztertuenetakoa izan
daitekeen hau ezagutu ahal izate-
ko, eta Irati inguruko pago ede-
rrak ikusteko.

«Greziar pentsamendua»
izenburupean mintzaldi ziklo bat
egonen da datorren astean, aste-
lehenetik ostiralera, Iruñeko
Aurrezki Kutxa Munizipalak
duen aretoan. Zikloa Nafar Ate-
neoa eta Jakintza Baitha talde
kulturalak antolatu dute, eta ber-
tan Greziako pentsamenduaren
ardatz nagusienei buruz hitz

egingo dute. Mintzaldi guztiak
arratsaldeko zortzietan izango
dira.

MUSIKA

Tapia eta Leturia trikitilari-
ek joko dute bihar larunbatan, Au-
rizberrin, bertako fontoian, eta
AEK Jirako ekitaldien barruan.

Ruper Ordorika eta Mugalaris
taldeak Ultzaman izanen dira
larunbatean ere, gabeko hama-
rretatik aurrera.

ZINEMA



«Zer egiten dugu amiñare-
kin?» eta «Bajo la aurora boreal»
izeneko pelikula ikus daitezke

ASTEKO PERTSONAIAK

Javier Zurbano



Intsumisoa

Iruñeko presondegian 94 egun
giltzaperaturik eman ondoren,
joan den ostiralean atera zen ka-
lera lehendabiziz Lizarrako in-
tsumisoa. Ostegunean gartzelako
zuzendariak hirugarren maila
zuela adierazi zion, eta hemendik
aurrera asteburu eta hilero sei
egunetan kalean izanen da. On-
doren, soilik lo egitera joan
beharko du gartzelara Zurbano.
Berarekin batera Joseba Lazkano
gazte eibartarra dago kartzelan,
luze gabe ere kalera aterako dena.
Bi intsumiso hauek dira Iruñeko
presondegian giltzaperatu duten
lehendabizikoak, baina maiatzar-
ako epaiketa gehiago daude ira-
garrita.

Ramon Arozarena



EEko buruzagi ohia

Ramon Arozarena politikari
Rabzandarrak utzi egin du Na-
farroako Euskadiko Ezkerrako
buruzagitza, alderdi honek
PSNrekin egin nahi duen bate-
ratze prozesuarekin bat ez dato-
rra eta. Erabaki honek desager-
tzeko bidean utzi du taldea, Ra-
mon Arozarena, batez ere Parla-
mentuan egindako lanari ezker,
bere buru eta erreferentzia ia ba-
karra bait zen. Gogoratu behar
ere Koldo Martinez bigarren or-
dezkarri nafarrak berriki utzia
zuela alderdia, EUEn sartzeko.
Hain zuzen ere, joan den asteaz-
kenean aurkeztu zen alderdi berri
hau Nafarroan, hamasei militan-
tekin.

Fernando Arretxe



Pilotaria

Ez dakigu zenbatgarrena den
Fernando Arretxe Luzaideko
pilotari mardula hemen agertzen
dela, baina ondo merezia du, zer
gero. Gustokoak ditugu hemen
helburuak izerdiz eta gogoz lor-
tzen dituzten horietakoak, dohai
aparte ez izanda ere, ahaleginei
esker besteen parera heltzen di-
renak, eta Fernando da horietako
bat. Hasiatik esan zuen hau
izango zela bere urtea, eta he-
mendik ere beraren aldeko apos-
tua egin dugu jadanik. Retegi II
eta Galarza izango ditu aurrean,
buruz buru, baina luzaidearra fi-
do da bere buruaz. Izan suete on,
Fernando, eta partidu untsa atera
dadila.

asteburu honetan Leitzako zine-
man. Lehendabizikoa, komedia
arlokoa, gaur eskainiko dute,
arratsaldeko bostetan eta zor-
tietan. Igandean, hilak 3, biga-
rren filma ikusteko aukera izango
da, aurrekoa bezala, arratsaldeko
bi saioetan.

IKUSKIZUNAK



Moskuko Bolshoi balletak
emanaldia eskeiniko du heldu
den asteartean, hilak 5, Iruñeko
Gaiarre Antzokian. Ikuskizun
aparta, beraz, ikusteko parada
arratsaldeko zortzietatik aurrera.

KIROLA



Irurtzango ibilaldi neurtua
prestatu dute Atakondoko men-
digoizaleek gaurko, hilak 1. Ibi-
laldia Eskoletatik aterako da 9 eta
10.30ak bitartean, eta ondoren
Itxesia, Aizkorbe, Artadia, Pla-
zaola eta Eskolan amaituko da.
Bukatutakoan txokolatada izan-
en da partaide guztiendako, he-
rriko akordeolariak jostatuta.

Pilota partiduak izango dira
bihar, maiatzak 2, Vianako pilo-
talekuan, Nafarroa Oinezeko jaia
dela eta Ikuskizun Komisioak
antolaturik. Hiru mailatan izango
dira partiduak: haur mailan, Ba-
lerdi III- Arrastia Pascual- Ruiz;
gazte mailan Goñi- Auxkin Ba-
lerdi II- Gorka, eta nagusi mailan,
Yaniz II- Lopez Martinez- Gar-
zia arituko dira. Partiduen hasie-
ra arratsaldeko seietan izango da.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10eta-
ra... **Xinguli Mangulu** hau-
rrendako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 13.00etatik 13.45eta-
ra... **Informazio Saioa** Baztan,
Malerreka eta Bortziritako
informazioa. Elizondo, Bera
eta Lesaka egunero.

HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteazkenan FMn 21.00etatik
22.00etara... **Gautxori** irra-
tsaio musikala. Narrazioak.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik
22.30etara... **Zuri eta Beltz**
Elkarrizketak, erreportaiak,
musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik
14.00etara... Bertako bizilagun
eta pertsonai ospetsuei elka-
rrizketak.

Euskara aukeratu, geroa eskuratu

IZASKUN IBARRA / IRUÑEA

Nafarroako Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiak lehenengo aldiz euskarazko irakaskuntzaren aldeko kanpaina jarri du martxan. Administrazio-ko beste erakundeekin batera egindako kanpainak haurrak euskerazko eredueta matrikula ditzaten animatzen ditu gurasoak. 12.000 haur baino gehiagok euskeraz ikasten dute jadanik Nafarroan. Euskarazko lerroetako matrikulazioak eredu desberdinetan azken urteotan ezagutu duen gorakada etengabe-koari eustea espero du gobernuak.

Aurten lehendabizikoz Nafarroako Gobernuaren Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiak haurrak euskarazko irakaskuntza matrikulatzeko kanpaina jarri du martxan. Hau ez da mota honetako lehenengo kanpaina, aurreko urteetan ere Euskara Zerbitzuak eta Zuzendaritzak berak eta Hezkuntza sailak ere honelako kanpainen parte hartu bait zuten.

Hala ere aurtengoa berezia da, lehenbizikoz instituzioanala eta bateratua baita. Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiak Udaltzakeria zerbitzuekin batera eta zonaldeko udalen languntzaz antolatuta du hiru milioiko aurrekontua duen kanpaina. Nafarroa osoan bakarria egingen da, eta ez aurreko urteetan bezala, kanpaina desberdinak, batzuetan, gainera oinarrietan erabat ados ez zirenak.

'Euskera aukeratu, geroa eskuratu' lelopean emanen da ezagutzera kanpaina. Hortarako liburuxka informatiboak, kartelak eta alkateen gutunak banatuko dira. Halaber iragarkiak jarriko dituzte komunikabide desberdinetan. Kanpainaren bidez, Nafarroan aukeratu daitezkeen hezkuntza eredu desberdinak eman nahi dira ezagutzera gurasoek haurrak nahi dutenean matrikula ditzaten.

Jose Maria Rodriguez Otxoa Hizkuntz Politikarako Zuzendari Nagusiak aurkezpenean adierazi zuenez kanpaina Vasconeceren Legearen ildo nagusietatik doa. Foru legearen 19. artikuluan espreki adierazten denez «Hiritar guztiek dute hezkuntza-mailetan irakaskuntza euskaraz eta erdaraz izateko eskubidea». Rodri-



Kanpainan bigarren hizkuntza ikastearen onurak azpimarratzen dira.

geuz Otxoaren esanetan, «Legearekin bat etorritik, bidezkoa da, beraz, guraso nafarrek informazio zuzena eta osoa izatea beren seme-alabak euskarazko hezkuntza-ereduetan batean irakaskuntza ematen duten ikastetxeetan matrikulatzeko».

Haurrak matrikulatu behar dituzten gurasoei liburuxka informatibo eta eskutitz bat igorriko zaie, dagokien euskara zerbitzuak eta udalak sinatutua, euskarazko

ereduan matrikula ditzaten animatuz. Lau liburuxka desberdin egin dituzte, zonalde bakoitzarako bat.

Liburuxka informatiboan biltzen dituzten adierazpenen artean, Juan Cruz Allik euskararen alde egin-dakoak agertzen dira. Bernardo Atxaga eta Kuko Zigandaren hitzak ere jasotzen dira.

Bertan biltzen dituzten adierazpenen artean Juan Cruz Allik euskararen alde egin-dakok agertzen dira. «Euskara Nafarroako kultur ondarearen zati bat da, behin betikoz eta naturaltasun osoz kontutan hartu behar duguna». Kuko Ziganda eta Bernardo Atxagaren hitzak ere jasotzen dira liburuxkan. Honetaz gain, Hezkuntza mailan euska-

raren egoerari buruzko estatistikak eta komikia daude.

Kanpainan elebitasunaren abantailak azpimarratzen dira. «Bigarren hizkuntza ikasteak garapena bultzatzen du. Eskola garaia bukatuta, aisago sartuko da lan munduan. Kulturaren eta giza-harremantzen ere aberasgarri gertatuko zaio», eta antzekoak agertzen dira bertan.

Iparraldean egindako azterketa baten emaitzak ere aipatzen dira. Frantziako Hezkuntza Ministeritzako funtzionarioek seigarren mailako (BBBko lehendabizikoa) ikasleei egindako froga batzuen ondoren, harrিতa gelditu ziren ikastolako eta eskola elebidunetako haurrak besteek baino emaitza hobekoak lortu zituztela ikusita.

Eskaera nabarmen areagotuko da ertain eta goi mailetan

P.U. / IRUÑEA

Euskarazko irakaskuntza publikoak Nafarroan —B eta D ereduak— gorantzako bideari jarraitu dio 1975-76 ikasturtez geroztik, OHO eta eskolaurreko mailetan. 84-85 ikasturtean, Euskararen legea onartu baino lehenago, 1.889 ikasle ziren, eta egun 10.510 dira oro har. Kopuru hau zonalde euskalduna eta Iruñerrian kokatzen da bereziki.

Ikastoletan, matrikulaketek gora egin zuten nabarmen 87-88 ikasturtera arte, 7.122 ikaslekin, baina ondoren beherakada izan da urtetik urtera, aurten dauden 4.300etara heldu arte. Kontutan hartu behar da Iruñeko udal ikastola eta Elizondokoa ikastetxe publikotzat hartzen dituela LOGSE legeak, eta ikastola zenbaitz sare publikoan sartu zirela.

Ertaineko irakaskuntzan, euskarazko irakaskuntza sare publikoan aurki daiteke bereziki.

Ikastoletan, 79-80 ikasturtean hasi zuen BBB eta UBiko irakaskuntza Zizur Txikiko San Fermin ikastolak, geroztik ere gorantzako bidea mantendu duena. Egundakoa, 1.883 ikasle dago mail honetan: 1.543 irakaskuntza publikoan, eta 340 ikastoletan.


Lanbide ikastetxetan, bakarrik eskaintza publikoa dago, eta orain arte, oso murriztuta. 87-88 ikasturtean hasi zen, 117 ikaslekin, eta egun lau ikastetxetan ematen da, 308 ikaslekin.

Eskolaurtean, 2.976 ikasle daude euskarazko irakaskuntzan, nafar ikaslegoaren % 20. OHOan, 7.534 ikasle daude (% 14,8); BBB eta UBIn 1.575 (% 8,4); eta Lanbide ikastetxetan 308 (% 2,4). Datuek adierazten dutenez, beraz, eskaera handituz joango da hurrengo urteetan, beheko mailetakoei aurrera egin ahala.

Egun, irakaskuntzaren % 12,35 da euskarazkoa, eta gehiena sare publikoan: % 62.

EUSKARAZKO MATRIKULAKETAK NAFARROAN

■ Publikoak □ Ikastolak eta Pribatuak



(*) Datu hauetan ez dira kontutan hartzen ikastola ez homologatuak 300 ikasle inguru dituzte.

(**) Elizondo eta Iruñeko Udaltzakeriak ikastetxe publiko bezala hartzen dira kontutan 90-91 ikasturtean ezkerotik.

I.MARTIARENA

EUSKARAZKO irakaskuntzak

mailari eusten dio Nafarroan. Hala ere, 1989-90an izan zen kopurua —12.809 ikasle— ez da berriro lortu. Aurtengo datuek 12.576 ikasle adierazten dute, irakaskuntzaren % 12,3, alegia. Baina urte hauetako bilakaerari gainbegiradaxoa emanez gero, adierazgarriena

da irakaskuntza publikoak izan duen gorakada nabarmena, Nafarroak Hezkuntza ahalmenak jasotzearen ondorioz eta LOGSE legea indarrean paratu ondoren, batez ere. Esan beharra dago ere erdarazko irakaskuntzak, urte berberetan, behera egin duela, jaiotzen beherakada dela eta.



Zaraitzu eta bere etorkizuna

Zaraitzun, aurten, berrogei milioi pezeta banatuko dira biztanleen artean, Iratiko basoetako ustiapenatik ateratako 'soberako' etekina, hain zuzen ere. Aspaldian

gertatzen den bezala, Batzarren 43. arautegiak protestaldiak sortu ditu aurten ere, hain beharrezkoak diren balizko inbertsioak alferrik xahutzeagatik. Guzti honen atze-

tik, baina, arazo sakonago bat dago: ibarraren etorkizuna, edota bere aldeko borroka egin nahi dutenak eta horretan sinisten ez dutenen arteko lehia.

Arautegi atzeratuen zama astuna

ALBERTO BARANDIARAN / OTSAGI

Zaraitzuko Batzarrak soberan duen diruaren banaketarena aspalditik datorren ohitura da. Iratiko basoen ustiapena hasi zenean, etekinak ugari eta urterokoak izan ziren, eta lehendabiziko garaian, ibarran zeuden gastuak baina franko handiagoak ziren. Orduan, etekin hori Zaraitzuko biztanleen artean banatzen hasi zen. Hasieran, banaketa ez zen dirutan egiten, janari edo elikagaitan baizik.

Etekin honek eztabaida sortu zuen ondoren, udalek euren gain hartu bait zuten dirua, bizilagunen kalterako. Auzia piztu zen, eta epaiketa batean azken hauek irabazi zuten. Hau da, bizilagunak izango ziren hortik aurrera etekinak jasoko zituztenak.

Egurraren ustiapena, baina, franko jeitsi da azken urteotan, eta enkantera ateratzen diren egur multzo dezente adjudikatu gabe gelditzen dira. Hori dela eta, duela bost urtetik hona ez zen diru banaketarik egiten.

Egun, Zaraitzuko Batzarraren 43. arauak dauka finkatuta ohitura. Bertan azaltzen denez, ohi-zeko eta ez ohi-zeko gastuak behin estalita, dirua soberan izanez gero, udalak eta urtean bederatzi hilabetez etxea irekita dutenen artean banatuko da. Horrela, % 13 udalei dagokie, eta gainontzekoa etxeko eta bertan bizi direnen artean egiten da.

Hasieran begi onez ikusita zegoen ohitura honek, protesta ugari sortu du azken urteotan, bereziki gazteen artean. Aurten, kasu, etxe bakarrean bizi den senar-emazteek 70.000-80.000 pezeta jasoko dute, baina gurasoekin etxean bizi den gazteak 10.000 pezeta inguru baino ez.

Diru kopuru eta beste gorabeheren atzetik, baina, arazo askoz sakonagoa dago: Zaraitzuko ibarraren etorkizunari buruz ikuspegi orokorra, hain zuzen ere. Askok ez dute ulertzen azpiegitura eta inbertsio handien premia dituen aldean dirua, oraindik gaur egun, biztanleen artean banatzea. Mikel Zoko batzarkideak azaldu duenez,



Zaraitzuko malkartasunak berak ez du gehiegi laguntzen aurrera egiteko.

«ohitura honek funtsa izan zezakeen mendearen hasieran, baina gaur egun, kontutan hartuta ibarraren egoera, onartezina da, ibar osoko garapena baldintzatzen bait du».

Batzarra hamazortzi batzarkidek osatzen dute, Zaraitzuko herri guztietakoak. Horretarako, behatzarekin egiten da aukeraketa, eta talde politiko bezala ez dira zerrendak aurkezten. Tentsioak, baina, izaten dira batzarkideen artean, bereziki ez ohi-zeko inbertsioak egin behar direnean. «Herri txiki-txiki ordezkariek, gehienak adinekoak, diruaren banaketaren aldekoak dira, eta gazteak inbertsioak nahi dituzte hemen, ibarrak bizia eta etorkizuna izan

dezan».

Egoera ulertzeko, esan beharra dago ez ohi-zeko gastua onartzeko 18 batzarkidetatik hamalauk eman beharko lukete aldeko botoa. «Herri txiki-txiki jendeak esaten du bakarrik herri handiek aterako dutela etekina edozein inbertsioetatik eta banaketa dute nahiago».



Ibarreko batzarrak Ezkarozen duen egoitza.

A.B.

Aurten 40 milioi pezeta banatu dira, eta horren aurka kanpaina hasi berri du ibarreko batzarkide eta zinegotzi talde batek. Lehen urratsa beraiei zegokien dirua batzarrari itzultzea izan da, jarrera argitzen duen eskutitzarekin batera.

«Alternatibak nahi ditugu ibar honetarako, eta horren alde borroka egin behar dugu. Haiek ez badakite zer egin berrogei milioi horiekin, guri eman diezagutela. Nafarroako Gobernura joango gara, eta mahaiaren gainean paratu dirua eta ideiak. Zaraitzu

zaharretxe bihurtu nahi badute, esan dezatela garbi», diote.

Batzarraren legea, baina, hor dago, eta salaketa publikoa egin nahi du taldeak, aldaketa izan dadin. Demokrazia garaiko lehendabiziko Parlamentura, Jesus Bueno Asiain Orimendi taldekoak eraman zuen gaia, eta talde guztiak ohitura aldatzearen alde agertu ziren orduan. Hala ere, ondoren ez zen ezertxo ere egin, eta ohiturak bertan dirau.

Orain batzarrean erabakiko da berriro gaia, eta batzarkide kritikoek besteen onespina jaso nahi

dute arauak aldatu edo beste irtenbideren bat bilatzeko. Horretarako gobernuaren inplikazioa ere lortu nahi dute, «banatzearena guztiz salatzea bait da. Alde batetik dirulaguntzak eta inbertsioak eskatzen zaizkio Diputazioari, eta bestaldetik, gure artean banatzen dugu dirua. Ez da logikoa». Hala ere, diruaren banaketa biztanleen artean oso errotuta dagoela aitortzen dute. «Edonork hartzen ditu gustoz hirurogei mila pezeta, baina jendeari jabearazi behar zaio inbertitu egin behar direla».

Zaraitzu eta bere etorkizuna

mintzoak



Inon baino gehiago, bertako gazteek dute giltza.

A.B.

Gazteak zaharren aurrean

A.B. / OTSAGI

Nafarroako alderik baztertuenetakoa betidanik izan den mendialdeak beherakada handia izan du mende honetan. Berrogei urtetan ibar hauetako biztanle kopurua erdira murriztuta, nekazaritza eta abeltzaintza hondoratu-ta, industriarik gabe, etorkizun zaila dago bertan.

Egoera horri aterabideak bilatzeko orduan frankotan aipatu izan da turismoa, industria bertaraino eramateko dauden arazoak direla eta. Izan ere, Iruñetik urrun eta gaizki komunikatuta, bertan ez dago ez azpiegitarik ez eta biztanle nahikorik ere industria sortu ahal izateko.

Turismoa Zaraitzu zein Erronkarin bultzatu da bereziki, baina horrekin lotutako bi proiektu —Nafarroako Piriniotako Parke Naturala eta Iratiko etxeena— oposizio bortitza sortu dute. Egun geldirik daude.

Zaraitzutik pasako den gasbideko lanak ere duela gutxi hasi dira bertan, eta eragin fuertea izango zuten hiru proiektu horiek ordain gisa erabili nahi dituzte bertan ibarraren garapenerako.

Hain zuzen ere, turismoaren eragina somatzen hasia da ibarrean, baina beldur dira eskuetatik alde egingo ote zaien. Iritzi oso zabaldua da Zaraitzuek ez duela soilik astialdirako txokoa izan behar, baizik eta turismoaren onurak ibarrean bertan gelditu behar duela.

PARKEA ETA GASBIDEA Parke Naturalaren proiektuak Gabriel Urralbururen Gobernuarekin ikusi zuen argia, baina makina bat eztabaida ondoren, bertan behera gelditu zen, eta egun geldirik dago. Orduko oposizioa ez zen parkearen guztiz kontrakoa, baina bai proiektua eta auzia planteatzeko eraren aurkakoa.

Gazteek badute egoerari aurre egiteko gogo berezia, baina topo egiten dute lege zahakituekin eta gehiengo batekin, zaharkitu samartuta hau ere.

Horretan eragin handia izan zuen ere Iratiko etxeetako proiektua, oposizio bortitza izan zuena. Abodiko bihotzean, Nafarroako alderik apartatuenetako baitan turismoarendako txaletak eraikitzeke asmoak ez zuen inoiz bertakoen oneritzia jaso. Alliren Gobernuak duela gutxi adierazi du proiektua ez dagoela aurrikusita. Hau da, geldirik dagoela.

Europako gasa ekarriko duen gasbidearen inguruko bilerak

egin ziren Nafarroako Gobernuak, ENAGAS enpresa eta udaletako ordezkarien artean, eta akordioak iragarri ziren, aldaketa zenbaitzuekin. Hala ere, badaude taldeak gasbidearen gaia berriro mahaiaren gainean paratzearen aldekoak, ibarrendako kontrapartidak lortu ahal izateko, eta denak iragartzen du luze gabe auziak berriro gaurkotasuna izango duela.

«GAZTEOK EGINEN DUGU» «Haiek ez badakite, geuk gazteok eginen dugu». Zaraitzu ibarretako arazoek gazte eta zaharren arteko lehia dirudite, batzuek besteekiko mesfindantza edo konfindantza falta bailuten. Gazteek badute egoerari aurre egiteko gogo berezia, baina topo egiten dute lege zaharkituak eta gehiengo batekin, zaharkitu samartuta ere. «Egoera, hala ere, aldatu da zertxobait, zaharrek ere esaten bait dute hau hiltzear dagoela, lehen esaten ez zutena».

Egoerari aurre egiteko, horrela, arazoak mahai gainean paratu nahi dituzte gazteak, «soluziobideak aurkitzeko, arazoak planteatu egin beharra dagoelako. Esaten digute inor ez dala etorriko hona inbertitzera, oso garraio txarrak daudelako eta azpiegitarak ez daudelako. Guk emango diegu soluziobideak, baina horretarako hitz egin behar da mahai batean, buruz buru. Eta gu gertu gaude, borroka egin behar duena beharra duena bait da».

MAHEE: Libertinaia gorri indiskret osoaz

● Iraulketa eta ondoko iraultzea hasi aitzin, honaxe ginen biltzen prozesu osoari lotuago izan ginenok. Egun haietan konspiratzeko erabiltzen genuen areto hau.

Carla maitea alde hartan jartzen zen eta erabakiak hartuak zirelarik, bai Karlos baita Julen ere bere ondora zetozen eta, alde banatan grinatsu lizunkoi agertuak, zirri egiten zioten.

Mario hemen zen jartzen, Françoise laztanaren pare parean; bazekien hark ongi aski begi gozo ederrak zituela eta Eguzkiak aurpegiari bete-betean jotzen zionean, argiago paratzen zitzaizkion, Françoise areago erakartzeko moduko, hain zuzen.

Ez zen iraulkide bihi bat nahi zuena atsegintsu dastatu gabe, bistan da.

Mehée ni eta Jakesen erdian jartzen zen Udako egun bero haietan, mahaiean oin izerdituak husturik, bion oin hustu beroak libertinaia gorri indiskret osoaz ukitzen zizkigun. Sekulan ez nion galdetu, ezta bururatu ere; Jakesek ordea, bai: berak galde egin zion eta Mahéek gisa honetan ihardetsi: «Akatuko banaute, enetxo, hire gorputz atal erotikoenaz oroitu nahi diat».

Arraroa, neska. Aski bakarti ibiltzen zen, sobera barnarkoi. Ez nuen konprenitzen, ez dut. Matxinada-astebete generamanean, Etorbide nagusiko barrikadaren ondoan koltxoi bat paratu zuen, berak bakarrik —laguntzarik gabe nahi dut erran—, eta garbi aditu ez banion ere, bai iduritu zitzaidan «burkideak animatzeko» edo antzekoa bota zuela apal, bere buruari agian, zeren ez bait zion nehortxori zuzen-zuzenean erran. Ez dakit baten bat animatu ote zenentz — ni ez ipurdia zauritua nuelkakoz (ez zen aitzakia: zinez nuen zauridun, eta horregatik kulunkatzeko gogo handirik ez)—.

Nontsutik hartu ote zuen? Nik dakidalarik, koltxoi guzi guziak abangoardiaratuak ziren eraso latzenak pairatzen zituzten gizon-emaztekiek noizbaiteko bederen bazen ere atsedendaldi emankorra jaso zezaten. Auskalo. Agian honakoa erabili zuen Mahéek bere artean: «Urliak eta Sendiak gordea zuten berendako; baina, hemendik goiti denondako izanzen da aitzindariari helduko

ez zaien arren». Iraulkide ageriro lizunzalea, Mahée. Maitagarria!

Handik egun batzutura, zelako koltxoi desagertu egin zen eta... egundaino ez naiz berataz ohartu —egia da, zer demontre agitu zen koltxoi harekin?— Nik dakidalarik —eta aski adigalkor ninduzuen garai hartan—, ez zuen nehortxok erabili; alabaina, arima guziak errespetatzen zuen, baita ikuzten ere: beti izaten zen bat edo bertze ur, xaboi eta guzi haren ikusketan (ni barne); izanez ere, koltxoi gogangarri hura eskuratzera gindoazen gozamen askearen ikur bilakatu bait genuen.

Eta zer-gatik atera dut kontu hau? A, Mahéez ari nintzelakoz; bitxia neska, bai eiki: zaputz, sekulanez; begiko eta maitakor sekulakoz. Emazteki emagarria. Nik maite nuen, eta hori berrori nahi nuen adierazi hasiera hasieratik, kontxo.

Egun, Garainenaren bigarren urtemuga delarik, berriro etorri naiz areto honetara agitura haietarik onik atera zirenekin jadanik ez daudenen omenez parranda, musu eta larru gaua ematera. Lehendabizikoa naiz; bakarrik nago, aulki batean luze-luze jarria, zangoak gurutzaturik, eskuak poltsikoetan ezker eskuaren eriak giltzen arteko txapel bakar lortu dudanarekin jostari... Mahée heldu da. Mahée heldu. «Hire baitan bezalaxe, nehoiz ez ditun xuntatu guriki eta hain biziri burrukarako gogoa eta likiskeriarako irritsa, biluztasun xalo ederra eta liskarreerikiko izukaiztasuna, gorputzaren nabarmentasuna eta arriskua-aren aurkako aterabide ezin ho-beak».

Mahée. Biziki lizunarazi ninduen neskatxa pertxenta, hilkarrean gatazkatu zuena gatazka hark berarekin zerikusirik ez bazuen ere —arrotza bai bait genuen—. Ez nintzen bere bizitzean sartu: horregatik zait hain misterioitsu eta bali-teke ideal ere, horregatik berregatik dut honelako arrenkura, nehoiz maitatu izan ez banindu bezain mingarri dudan arrenkura hau.



Vicent Gil De Paules Irakaslea



TXALAPARTA
Gure liburuak

78 Postakutxa

TAFALLA (Nafarroa)

Tel. (948- 70 32 77)

Gazteendako Zokoa

Uroila

Gallinula chloropus
Kolare anizduna
Bakartia
Nafarroa osoan



Landaretzaren laguna

Oso hegazti sendoa, eperraren tamainakoa, zingira eta itsaspaduretan bizi ohi da, begetazioetatik beti gertu, horretaz baliatzen baita ezkutatzeko arriskuren bat somatu bezain laister.

Bakarrik aritzea du gustoko, kopetazuri bere espeziekiea ez bezala, hau sailka aritzen baita askotan. Uroilak luma ilunak ditu, marra txuri batekin saihe-tsean. Moko gorria dauka, eta punta horia. Atzaparrak berdeak eta gorriak. Kolore anizduna, beraz.

Oso ezaguna da hegan hasi baino lehen korritzeko duen ohi-turagatik. Hegan ari denean, zintzilik eramaten ohi ditu atzaparrak. Ez da oso ugaria, baina ura duten alde gehienetan ez da zaila aurkitzen. Izan ere, espezie honen izugarriko ahalmena dauka gizakumeak aldatutako edozein girotara egokitzeko. Oso kutsatuta izanda ere, landaretzarik izanez gero, uroila aurkituko dugu.

Begetazioa du elikagai nagusi, eta kabia uraren gainean paratzen du, landareta artean. Bertan 4 eta 11 arraultz bitartean erruten ditu, eta bi edo hiru errutaldi ditu urtero.



Arrosa gorriak

AINARA FERNANDEZ

Azkenean egin dut. Ez dakit nola moldatzen naizen, baina arrosa gorriak ikusten ditudan bakoitzean berataz oroitzen naiz. Ze gauza bitxia, ezta? Zenbat aldiz egin dudana negar, teoriak ezagutzen ez dudana pertsona batengatik. Gezurra!!! Ezagutu nuen nahiz eta hortaz ez oroitu.

Baina zerbaitetaz oroitu naiz berarengatik negar egiten badut. Hain txikia nintzen bera joan zenean... bi urte. Bai, bi urte horietan nerekin ahal zuen denbora guztietan zegoen pertsona, hitz egiten irakatsi zidana... nere lagunak hoberena nahiz eta horretaz ez ohartu.

A ze bizitza maltzurra! Zelako erreztasunarekin eramaten duen maite dugun jendea. Ze demontre egin genuen gaizki halako zigorra jasotzeko? Zergatik ez ote nuen hobeto ezagutu, momentu

horretan gehien maite nuen pertsona?

Bi urte nituen, bai. Baina joan zenean besteak bezala mindu nintzen. Edo gehiago, segun eta zein aldetatik begiratzen duzun. Bai, eta oraindik ere, momentu honetan, negarrez hasiko naiz. Zergatik ez? Ez naiz zergatik lotsatu behar, arantza hori betirako hor izango dudalako, bihotzeko parterik hondoratuenean.

Gehien mintzen nauena benetan ezagutu ez izana da. Hainbeste gauza entzun ditut! Denek maite zuten pertsona horietako bat zen, munduan hiru edo lau daudenetakoak soilik, eta joan egin behar. Zergatik?

«Ezagutu beharko zenuke...» Gaiztoa edo maltzurra hitzak, gaiztakeriak edota minak, ez ziren bere hiztegiok. Beno, horrela perfektoa zela dirudi, eta inor ez da perfektoa. Baina ia ia bai. Berarekin amets egin dut

mila aldiz, bizirik dagoela, eta guzti hau amesgaizto besterik ez dela. Baina ez! Momentu horretan, esnatzean, nere logela eta nere etxea gorrotazen ditut. Nahi dudana gauza bakarra zera da: nere gelako atea ireki eta bera, han, zutik egunonak ematea. Ez da hori gertatzen. Atea itxita eta nik nere burutazioekin, iluntasunean galduta, galdera baten erantzuna aurkitu ezinik: Zergatik?

Eta ez daukat erantzunik. Inoiz ez dut aurkituko erantzun hori. Zer egin behar dut? Bai, gauza bat egin dezaket: berataz oroitu, maitatzen jarraitu bera ez egon arren eta, garrantzitsuena, betirako joan dela ez pentsatu. Bai, hori pentsamendurik sendoena da: beti gure inguruan ibiliko dela, ez bere gorputza baizik eta bere arima, bere sentimenduak ere. Nere anai maiteak inoiz utziko ez gaituela eta guk ez dugula ahaztu argi dago.



BASAJAUN

Kaixo, laguntxok! Basajauna ez eta ez nago oso pozik nere baso eta zelaiek duten egoerarekin. Horregatik, hemendik aurrera, ostiraleko aholku praktikoak izanen dituzu ataltxo berri honetan. Aholku hauek kontutan hartzen badituzu eta zure aldetik dauden lanak egiten badituzu, denek eskertuko dizute.

Amazonia, 'negutegi efektua', ozono geruzaren zuloa, Antartidaren etorkizuna, kutsadura orokorra, eta abar... Denek ezagutzen ditugu arazoak, egoera, baina zertan gabiltza zerbait egiteko?

Nik, basoetako jauna, idatzitako testu txiki hauek horretarako prestatu ditut, modu praktiko eta errezean, gure aldetik egiteko dagoen guztia azaltzeko. Beste guztia zure esku dago.

Milaka protokolo eta bilera izan dira gai honen inguruan azkeneko urte hauetan zehar. Gehienetan ikusi ahal izan da gizaki guztiek beren eginbeharrak betetzen ez badituzte ez dagoela zer eginik. Adibide erreza, ozonoaren gaia izan liteke.

Honen inguruan sinatu den 'Vienako protokoloa' hitzarmenaren garrantzia neurri eraginkorrak hartzean datzan, kaltea konpondu ezina eta beranduegi izan baino lehen. Baina, berez, adierazpena baino ez da, atmosferara produktu kaltegarriak gutxitzeko neurri zehatzak proposatu gabe.

Gure aldetik, protokolo honen aurrean badago zer eginik, eta horretaz arituko gara lanean ostiraleko. Baina zure esku dago guk egiten dugun lana egia izatea. Basoan denek lanean gabiltza, eta animaliak nahiko haserre daude. Ea lortzen dugun gizakumeek kontzientzia ekologikoa hartzea, eta hauen etxeak diren zuhaitzak lasai uztea.

KAZKARROAN

Bertsolari gazteen eguna

Heldu den igandean Elorrioren (Bizkaia) ospatuko denari buruz. Iruñeko Zaldiko Maldiko bertso eskolan botatakoak.

Maiatzaren hiruan ospatzen duguna da saio alai ta polita, txukuna Elorriora joan gazte euskalduna aukera ona dala hain da ezaguna, hor dago bertsolari gazteen eguna

Egongo dira zenbait bertsolari berri batzuk lasai kantatuz ta besteak larri saioa izango da zuretzat pozgarri horrelako aukera ez da izango sarri ondo pasatzeko asmoz gurekin etorri

Joseba Garziandia eta Eihande Argos

KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Beheko taula osatu ondoan Imotzen jasotako esatera zahar bat ageriko zaizu.

1. Trapu
2. Ahariaren emea
3. Herren
4. Aunitz ..., zorionak!
5. Gibelaldea.

B	6	A	4	A	7	A	2	A	10		
A	7	B	9	D	5	B	7	D	9		
A	1	D	3	A	3	D	1	B	4	A	9
B	5	D	4	A	5	B	10	D	8		
D	6	B	1	A	6	B	2	B	8		

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
A										
B										
D										

Zaharrak berri

Hitza agotik atera baino lehen bi buelta emaitziora mihiriari.

Zuhurra izan behar.

Mezkiritz

Gaitza, lapur ixila.

Inork uste ez duenean etortzen da.

Imotz

Aitak esan zion sei urteko semeari:

—Aitor, Aitor! Gaur gauean neska txiki bat ekarri digute Parisetik!

—Bai? Eta amak ba al daki?

Bizi Bizian

Iruñerriko taberna batetan kontzertu bat antolatzea ia-ia legezkanpoko bilakatu da. Apirilaren hamarrean ASBALek —dantzaleku jabeak elkartzen di-

tuen erakundea— prentsaurrekoa eman zuen eta bertan tabernekin burutzen zuten kompetentzia ez zela zilegi salatu zuten. Horren ondorioz, Nafar Gobernuak eta Iruñeko Uda-

lak, kontzertuak burutu ahal izateko betebeharreko baldintzak gogortu dituzte. Arazo hau dela eta, musika taldeak kontzertuak burutzeko areto aproposik gabe gera litezke.

Kontzertuentzat tokirik ez

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

Azken astetan Iruñeko tabernariak arazo larriak dituzte kontzertuak antolatu ahal izateko. ASBAL elkarteak —Iruñeko dantzaleku jabeak elkartzen dituen erakundea— apirilaren hamarrean prentsaurreko batean dantzalekuak bete behar dituzten baldintza gogorak salatu zituzten eta, aldi berean, taberna arruntek burutzen duten zilezkoa ez den kompetentzia aipatu zuten. Astebete beranduago, Iruñeko Udalak eta Nafar Gobernuak kontzertu antolatzailei gutxieneko baldintza batzuk betearazten hasi ziren. Horrela, Iruñeko Udalak tabernetako kontzertuak burutzeko diru laguntzak ematekin, hauek debekatu nahi izatera pasa da.

Betebeharreko arauen artean arazo gehien sortarazi duena larrialdietarako irteera edukitzearena izan da. Egun Iruñerrian gutxi dira baldintza hori betetzen duten tabernak, eta alde zaharrean, kasu, bat ere ez dago. Ondorioz, desagertzeaz daude Iruñerrian ostegunero egiten diren kontzertuak.

IRTENBIDE BATEN BILA Tabernari zein musika taldeak buru belarri aritu dira irtenbide baten bila. Bakarra izan da aurkitu dutena. Azkenean argudio legal bat lortu dute kontzertuak egin ahal izateko, 'jostatze' termino legala hain zuzen ere. Egungo legearaudiaren arabera, taberna batetan musika jotzea, berez, ez da kontzertu bat. Nafar Gobernuak letradua den Jose Miguel Idoatek azaltzen duenez, «legearaudia ez da oso

Duela zortzi urte Iruñeko alde zaharreko tabernetariak kontzertuak antolatzen hasi ziren. Barricada eta beste talde hasberriak ziren jostaten zutenak.

argia arazo honetan. Dena den taberna batetan propagandarik gabe, sarrerarik kobratu gabe, eta eszenatokirik gabe burutzen den musika emanaldia ez da kontzertua, 'jostatze' baizik».

Beraz, taberna batetan musika jotzea ekitaldi legala izan daiteke. Argudio honen babespean

'jostatze' antolatu dira zenbait tabernetan azken bi astetan, baina azken hilabetetan burutzen zirenak baino askoz gutxiago. Modu honetan talde anitzek jendearean aritzeko zeukaten aukera bakararra galdu dute, eta duela zortzi urte sortu zen ohitura desagertzeaz dago.

Iruñeko Udalak kontzertuen antolatzaileei diru laguntzak ematen zizkien lehen. Egun, tabernetan egindako kontzertu hauek debekatzen saiatzen da.

DUELA ZORTZI URTE Esan bezala, duela zortzi urte ohitura berria sortu zen Iruñeko alde zaharrean. Bezero kopurua murrizten ari zen, eta tabernekin 'potea' berpizteko kontzertuak antolatzea erabaki zuten. Garazi, Niza eta inguruko tabernetan 'Barricada' bezalako talde hasberriak zarata ateratzen hasi ziren. Taldeak oso ezagunak ez ziren arren, jende mordoska biltzen zen kontzertuetan, eta modu honetan taldeen ospea handitzen zen. Hala eta guztiz, kontzertuak asteburuetan egitea ez zen errentagarria tabernetzat. Larunbata eta igandetan kontzerturik gabe ere diru berbera eskuratzen zuten tabernariak. Gainera kontzertuak egitekotan, taldeei ordainsaria eman behar zieten. Ondorioz, kontzertuak asteazken eta ostegunetara pasa ziren.

Rock jaialdietaz aparte ekitaldi moeta ezberdinak egiten hasi ziren garai horretan. Ia ostegunero antzerkia, mimoa, Jazz kontzertuak eta abar luze bat gozatzeko aukera zuen Iruñeko alde zaharrera hurbiltzen zenak. Ekitaldi hauek, tabernariak diotenez, «dirutza handia irabazi gabe —batzutan dirua galduz— ohizko bezeroei dibertimendu berezi bat eskeintzeko era bat ziren».

Iraunkortasun finkorik gabe izan arren, ohitura urteetan zehar mantendu da. Azken urte honetan ohitura, mantentzeaz gain, zabaldu egin da. Egun, alde zaharretik kanpoko tabernetan ere izaten dira kontzertuak. Donibane auzoan Katuska tabernan, Burlatan Black Rousen eta beste auzoetako tabernetan ere kontzertuak egiten hasi dira. Baina kontzertuen areagotzearekin batera arazoak heldu dira.



«Taldeentzako mesedegarria»

J.K.L. / IRUÑEA

Tabernen jabe zein musika taldetako kideek iritzi berdintsua agertzen dute kontzertuei dagokionean. La Granja taberna kontzertu hauen antolaketaren aitzindaria izan zen, eta egun ere lan horretan dihardu. Honen zerbizaria den Javier Goñi Urbeltzek horrela azaltzen du kontzertuak antolatzen hastearren zergaitia: «Gure helburua jendea animatzea zen. Telebistak jendea denbora pilo bat kentzen dio, eta horrelako gauzak antolatzen baidituzu gehiagotan iritetzen da kalera». Auzokideak ere kontutan hartzen dituztela dio Javier Goñik. «Ez molestazearren, kontzertuak goiz egiten saiatzen gara. Normalean bederatzi t'er-

dietatik hamaika t'erdietara izaten dira. Ez dakit zergatik debekatu nahi dituzten».

Caldereria kaleko Garazi taberna ere hasiera hasieratik izan da kontzertu antolakuntzan. Taberna honetako jabea den Ramon Llorens Garciak kontzertuena batez ere taldeentzako dela mesedegarria dio. «Ez dira aberastuko, baina nolabait ezagunagoak egiten dira. Nere ustez kontzertu hauek musika mundua berpiztu dute Iruñean». Katuska tabernetakoak ere kontzertuen babesle sutsuak dira. «Kontzertuekin ez diozu inori kalterik egiten, ez diskotekei ez eta auzokidei ere. Gainera guk ez dugu diru asko irabazten, gure bezeroentzat antolatzen dugun zerbait da».

Musika taldetako kideak ere

kontzertuen aldekoak agertzen dira. Rubenek —'Tijuana in blueko' bateria— argi eta garbi dio: Lotsagabekeria iruditzen zait tabernetako kontzertuak debekatzen saiatzea. Taldeentzat ez dute beste irtenbiderik ematen. Oso giro jatorra izorratzen ari dira. Satira taldeko kitarrajolea den Eduardo Zamorak antzeko iritzia du: «Legea agian ez dugu gure alde, baina argi dago talde askorentzat irtenbide bakarra dela».

ASBALeko —dantzaleku enpresariak osatzen duten elkarteak— kideek iritzi zeharo ezberdina dute tabernetan egindako kontzertuei buruz. «Dantzaleku arau oso gogorak ezartzen dizkigute horrelako ekitaldiak burutzen ditugunean. Tabernekin egiten dutena kompetentzia desleiala da».

Pottoka.....kantaria

«Ez dut konplikatzen neure bizitza»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

EGUNKARIA.— Diskoaren grabaketa lanean zu bakarrik aritu zara, edo musikarien baten laguntza izan duzu?

POTTOKA.— Egin ditugu kantuak eta Zarak egin du bateria, Marinok baxua, Toñok gitarra—Balerdi Balerdikoak denak—eta Josu Zabalak akordeoia.

EGUNKARIA.— Izena pentsatuta daukazu diskoarendako?

POTTOKA.— Bai, 'La Rivoluzione de la tradizione'.

EGUNKARIA.— Diska honetako abestien letrek aurrekoen hildo beretik jotzen dute, edo badute beste jorera desberdinek?

POTTOKA.— Kantuak lau urtekoak, hirurokoak, eta duela bikoak dira. Hau da, zazpi kantuak ez dira oraindik, baina bildu ditugu denak diska honetan. Bilduma antzeko zerbait izan daiteke.

EGUNKARIA.— Kontzertuetan beti bakarrik aritzen zara eta horrek bere desabantail eta abantailak izan ditzake. Zer zara, horrelako kantautor moderno horietakoa, edo nola definituko zenuke zeure musika eta zeure burua?

POTTOKA.— Kantautore moderno... Nik ez dakit, nik kitarra badut eta jotzen dut harekin, ez naiz konplikatzen bizitza, izatea gauz bat edo bestea. Bakarrik jotzearena, talderik ez daukadalako da, eta ongi nago horrela.

EGUNKARIA.— Gustorago zaude

horrela talde batekin baino?

POTTOKA.— Zuzenerako presatatu ditugu kantak, Balerdi Balerdikoekin, baina kontzertuetan arituko naiz lehen bezala: batzutan bakarrik, eta bestetan, Balerdi Balerdikoekin, haiek nahi badute, dena batera.

EGUNKARIA.— Beste diska 'SS/77' eta 'Kiowa' taldeekin atera zenuen, eta horretan ez zen oso garbi gelditzen herriko bizitza maite edo gorrotatzen zenuen. Nola moldatzen zara herrian?

POTTOKA.— Herria ez bazitzaikun gustatzen, aspaldian alde egingo genuen hemendik, ezta?

Guri gustatzen zaizkigu pagoak... eta ez da beti nahi bezala, martxa guttiago dagoela eta, baina bueno, gure bizitza hemen dago. Hori garbi dago.

EGUNKARIA.— Zure abesti batean, ospetsuean, akaso, esa-

ten duzu zure herri horretan ez zaituztela ulertzen. Hortik kanpo ulertzen al zaituztete?

POTTOKA.— Nihork ez digu ulertzen guri.

EGUNKARIA.— Kontzertuetan eta, nola moldatzen zara? gustokoa duzu zuzenean jotzea?

POTTOKA.— Bai, gustatzen zait, baina gehiena gustatzen zait konposizioak egitea. Urtean bi baino ez ditut egiten, baina, bueno. Zuzenean jotzeak ez nau gehiegi 'tiratzen'.

EGUNKARIA.— Eta non jotzen duzu, bakarrik tabernetan, edo leku handiagotan?

POTTOKA.— Batez ere gaztetxe

Pottoka Amaiurko kantautoreak duela gutxi amaitu berri du bere lehendabiziko diska, 'La Rivoluzione de la Tradizione' izenburua eramango duena. Bigarren aldiz kalean, baina lehendabiz bakar-lanean, aurrekoa 'Kiowa' eta 'SS/77' taldeekin atera bait zuen. Estilo berezi eta pertsonalaren jabe, baztandarrak ez du gehiegi maite ospe eta fama, baina beldur aparta ere ez dio. Hori bai, bere herrixkan duela bere mundua ongitxo daki Pantxok.



A. GOÑI

dut uste.

EGUNKARIA.— Amaiurko bati nola bururatzen zaio bapatean horrelako nahasteen sartzea? Kitarra hartu, diska grabatzen hasi, eta guzti mundu arraro batetan.

POTTOKA.— Galdera hori hogei aldiz egin diot nerorrek nere buruari, eta oraindik ez dakit zertaz, edo nondik atera den historio

Anitzetan ahalke-tzen naiz, ikusten bait ditut auzokoak denak, eta denak nekazari, eta kitarristik ez dago inon. Ni bakarrik, hemen galdua.

hau... ez dakit.

EGUNKARIA.— Nondik atera da Pottoka izen hori?

POTTOKA.— Mendietako pottokatik. Libertatea eta hori. Bakoi-tzak nahi duena egin, inolako loturarik gabe. Egin behar baren talde bat, taldearen izena ere hori izango zen.

EGUNKARIA.— Musikaz aparte, zer egiten duzu?

POTTOKA.— Baserriko lanak! ardiak eta behiak eta historio hauek. Aunitzetan ahalketzen naiz, ikusten bait ditut auzokoak denak, eta denak nekazari, baina kitarrista ez da inon. Ni bakarrik, hemen galdua.

EGUNKARIA.— Eta herrian ongi moldatzen zara, hiri handietako mugimendurik gabe?

POTTOKA.— Bai, gu 'autosufizienteak' gara. Nahiz eta aunitzetan aspertu pila, baina bai, normalean hemen ibiltzen gara.

eta ostatueta jotzen dugu. Udaletxeek ez dute dirurik guri laguntzeko.

EGUNKARIA.— Aurreko diskaren esperientzia zer moduzkoa izan zen zuretzat? Pozik zaude abestiekkin?

POTTOKA.— Bai, hura izan zen aurkezpena, presentazioa, eta pixkat ezagutzeko eta ongi egon zen. Hortik hasita ja badugu pauso bat emana, baina urte t'erdia pasa da esperientzia horretatik...

EGUNKARIA.— Nafarroako taldeei buruzko egoera zer iruditzen zaizu?

POTTOKA.— Ba, ingelesez abes-

ten ez duten guztiak ongi hartzen ditut. Inglesena da gehiegizkoa. Ez ditut entzuten. Euskaraz badira batzuk ere, eta gero Barricada eta heavy batzuk ere aditzen ditut.

EGUNKARIA.— Badirudi arrakasta ez duzula gehiegi maite. Diska honekin ailegatuko balitz, kontzertu handiak, eta hori, nola eramango zenuke?

POTTOKA.— Bueno, eramango nuke, baina hilabete behin edo bitan egingo nituzke kontzertuak. Igoal gehiago. Igoal sartzen zait derrepente izugarriko gogo musikalak eta... baina, beno, ez

NOSKI
JATOR

ZVLDI EROA

